ko da 7:00etatik 22:00etara, baita egunero ere, 22:00etatik 7:00etara.

***Bigarrena.***– Akordio hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunetik jarriko da indarrean.

Erabaki honek administrazioko bidea amaitzen du; beraz, bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabete biko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko urriaren 16a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,
JOSE LUIS MONTALBAN MONGE.

te la Tarifa II desde las 7:00 horas a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local.

***Segundo.***– El presente Acuerdo entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra esta Resolución que agota la vía administrativa, podrá interponerse Recurso contencioso-administrativo ante la Sala de esta jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de octubre de 2003.

El Presidente de la Comisión de Precios de Euskadi,
JOSÉ LUIS MONTALBÁN MONGE.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

## Zk-6129

258/2003 DEKRETUA, urriaren 21ekoa, nekazaritzako eta elikadurako produktuak sustatzeko jarduketetarako laguntzari buruzkoa.

Gure ingurune fisikoaren eta produkzio-egituraren ezaugarriak direla eta, ezaugarri bereziak dituzten kalitateko produktuak garatzea oinarrizko tresna dugu EAEko nekazaritza eta elikadura sektorearen lehiakortasuna hobetzeko.

Hortaz, nekazaritzako produktuen berezitasunak zainduko dituen politika, produkzioa handitzea helburu bakarra ez duten irizpideetan oinarritua, kalitate hobeko produkzioak lortzea xede duen politika alegia, lurraldean ingurumenaren gaineko eragin txikiagoa izateaz gain, egokiena gertatzen da epe luzerako garapen eramangarria izateko.

Azpimarratu behar da, bestalde, nekazaritzako, basoko eta elikadurako produktuak eraldatzen eta merkaturatzen diharduten enpresa txiki eta ertainek osatzen dutela gehienbat gure industri sarea. Beraiek eusten diote sektoreari eta, gainera, landa aldeetako gizarte-egonkortasunaren eta ekonomiaren eragile dira.

Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak ahalegin handia egin du gure produkzioak hobetzeko. Ahalegin hori EAEko nekazaritza eta elikadura sektore osoari laguntzeko hainbat programaren bitartez bideratu da.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

## N°-6129

DECRETO 258/2003, de 21 de octubre, de apoyo a actuaciones de promoción de los productos agrarios, y alimentarios.

La disposición que presenta tanto nuestro marco físico como nuestra estructura productiva, hace que el desarrollo de una gama de productos de calidad, con características propias y diferenciadas, se configure como una herramienta básica para la mejora de la competitividad del sector agroalimentario vasco.

La existencia, por tanto, de una política que respete las características propias y diferenciadas de los productos agrarios, basada en criterios que no tengan como objetivo exclusivo la obtención de incrementos de producción, una política que tenga como horizonte la obtención de producciones de mayor calidad, además de generar un menor impacto ambiental en el territorio, resulta ser la más adecuada para el mantenimiento de un desarrollo sostenible a largo plazo.

Asimismo, hay que señalar que las pequeñas y medianas empresas dedicadas a la transformación y comercialización de productos agrarios, silvícolas y de la alimentación conforman la mayor parte de nuestro tejido industrial, constituyendo éstas la base de dicho sector, siendo además un importante factor de estabilidad social y de dinamismo económico de las áreas rurales.

En los últimos años se ha llevado a cabo por parte del Gobierno Vasco un importante esfuerzo en la mejora de nuestras producciones, esfuerzo que se ha materializado a través de diferentes programas de apoyo al conjunto del sector agroalimentario vasco.

Hala ere, gure enpresak txikiak dira eta ondorioz baliabide urrikoak, bai finantzen aldetik eta bai langileen aldetik. Horrek garapena moteldu egiten die, zailago dutelako merkatu berrietara iristea, batez ere esportazio-merkatuetara.

Horregatik guztiagatik, sustapenerako tresnen beharra dute, euren produktuak gure Erkidegoaren lurraldeko mugetatik harago ezagutarazi ahal ditzaten. Izan ere, produktuak zabaldu ezin izatea eta horren ondorio den merkaturatze eskasa sarritan oztopo larriak izaten dira gure landa aldeen garapenerako.

Dekretu honen lehenengo kapituluan xedapen orokorrak jaso dira, eta bigarren kapituluan laguntzen araubidea ezarri da, Itunaren I. eranskineko produktuak sustatzeko egiten diren jarduketetarako. Hirugarren kapituluan laguntzen araubidea ezarri da I. eranskinean sartuta ez dauden nekazaritzako eta basoko produktuetarako, kontuan izanik Batzordeak 2001eko urtarrilaren 12an onetsitako 70/2001 (EB) Araudian ezarritakoa, estatuek enpresa txiki eta ertainei ematen dizkieten laguntzetan EB Itunaren 87 eta 88. artikuluak nola aplikatu behar diren azaltzen baitu.

Horrenbestez, beharrezko txostenak egin ostean, eraginpeko sektoreei kontsultatu eta gero, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak proposaturik, eta Gobernu Kontseiluak 2003ko urriaren 21ean egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Xedea.

Dekretu honen xedea da laguntzen araubidea ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzako eta elikadurako produktuak sustatzearren egiten diren jarduketetarako. Izan ere, horrelako laguntzen bitartez bultzada eman nahi zaie landa ingurunearen garapenari eta kalitateko nekazaritza produkzioei.

*2. artikulua.–* Onuradunak.

1.– Dekretu honetan araututako laguntzez honakoak onuratu ahal izango dira:

a) Nekazaritzako eta elikadurako produktuak eraldatzen eta merkaturatzen dituzten enpresa txiki eta ertainak (arrantza arlokoak izan ezik), egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badute, eta halako enpresek soilik osatutako partzuergo eta enpresa-elkarteak, direla pertsona fisikoak nahiz juridikoak.

b) Nekazaritzako produktuak eraldatzen eta merkaturatzen dituzten enpresek (arrantza arlokoak izan ezik) sortutako fundazio eta irabazteko asmorik gabeko el-

Sin embargo, el reducido tamaño de nuestras empresas y, por tanto, la escasez de recursos tanto financieros como de personal que presentan, constituye un freno para su desarrollo, al hacer más difícil que estas accedan a nuevos mercados, especialmente los de exportación.

Por todo ello, se hace necesario que puedan disponer de herramientas de promoción que permitan dar a conocer sus productos fuera de los límites territoriales de nuestra Comunidad, dado que en muchos casos la imposibilidad de dar a conocer estos productos y el déficit de comercialización que ello conlleva, supone de hecho un importante freno para el desarrollo de nuestras zonas rurales.

La estructura del Decreto se presenta con un primer capítulo que desarrolla las Disposiciones Generales, mientras que en el segundo se establece el régimen de ayudas para las actuaciones de promoción que se llevan a cabo para los productos incluidos dentro del Anexo I del Tratado. En el tercer capítulo se establece el régimen de ayudas para aquellos productos agrarios y silvícolas no incluidos dentro del Anexo I de acuerdo con lo establecido en el Reglamento (CE) N.º 70/2001 de la Comisión, de 12 de enero de 2001, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado CE a las ayudas estatales a las pequeñas y medianas empresas.

En su virtud, previos los informes pertinentes, consultados los sectores afectados, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 21 de octubre de 2003,

DISPONGO:

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto del presente Decreto el establecimiento, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, del régimen de ayudas a las acciones de promoción de los productos agrarios y alimentarios, como medio para contribuir a impulsar el Desarrollo del Medio Rural y las producciones agrarias de calidad.

*Artículo 2.–* Beneficiarios.

1.– Podrán ser beneficiarios de las ayudas reguladas en el presente Decreto:

a) Las pequeñas y medianas empresas dedicadas a la transformación y comercialización de productos agrarios y de la alimentación, excluidas las pesqueras, radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, consorcios y las agrupaciones de empresas constituidas exclusivamente por éstas, ya sean personas físicas o jurídicas.

b) Las fundaciones y asociaciones sin ánimo de lucro de empresas transformación y comercialización de productos agrícolas, excluidas las pesqueras, y consejos

karteak, eta jatorrizko deituren kontseilu arautzaileak (JDKA), baldin eta haien eremua osorik sartzen bada Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eta egiten dituzten jarduketei diru-laguntza eman ahal bazaie, dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

2.– Artikulu honetako 1-b idatz-zatian ezarritakoarekin bat, dekretu honi dagokionez ez dira nekazaritzako, basoko eta elikadurako produktuak eraldatzen eta merkaturatzen dituzten enpresatzat hartuko horrelako produktuak merkaturatu besterik egiten ez duten enpresak.

3.– Diru-laguntzarik ez da emango, ezta ordaindu-ko ere, harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo bere erakunde autonomiadunek ematen dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasita dauden itzulketa edo zehazpen-prozedurak amaitu arte.

*3. artikulua.*– Betekizun orokorrak.

1.– Hauek dira eskatzaileen betekizunak:

a) Egunean izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

b) Enpresa izanez gero, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Basogintzako Industrien Erregistroan alta eskatzea edo inskribatuta egotea, eta bertako datuak eguneraturik edukitzea.

c) Bi enpresak edo gehiagok batera egiten badituzte sustapen jarduketak, baterako ekintza horietan hartu duten konpromisoa behar adina egiaztatzen duen kontratua edo bestelako agiri juridikoa aurkeztu beharko dute.

2.– Laguntza eskatzen duten ETE-ek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, gainera:

a) 250 langiletik behera edukitzea.

b) Urteko negozio-bolumena 40.000.000 milioi eurotik gorakoa ez izatea, edo urteko balantze orokorra 27.000.000 milioi eurotik gorakoa ez izatea.

c) Beste enpresa batek, edo batzuek, ez izatea enpresan kapitalaren %25etik gorako partaidetzarik, ez zuzenean ez zeharka, non eta ez dituzten betetzen goian azaldutako baldintzak.

Muga hori bi kasu hauetan gainditu ahalko da:

– Enpresa partaide denean partaidetzako sozietate publiko, arrisku-kapitaleko sozietate edo erakunde-inbertsioetarako sozietateren batean, baldin eta sozietate horiek enpresaren gain inolako kontrolik ez badute, ez banaka eta ez batera.

– Kapitala banatuta dagoen moduagatik haren jabea nor den zehazterik ez dagoenean. Kasu honetan, enpresak adierazi egin behar du zilegi duela uste izatea bere kapitalean ez duela %25eko edo hortik gorako par-

reguladores de las denominaciones de origen (C.R.D.O) con base territorial íntegramente en la Comunidad Autónoma del País Vasco, siempre que realicen actuaciones dentro de las contempladas como subvencionables por este Decreto.

2.– A los efectos de este Decreto, no tendrán la consideración de empresas de transformación y comercialización de productos agrarios, silvícolas y de la alimentación aquéllas cuya actividad consista en la mera comercialización de dichos productos, de acuerdo con lo establecido en el apartado 1-b) del presente artículo.

3.– La concesión y, en su caso, el pago de estas subvenciones a los beneficiarios quedará condicionado a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de las ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 3.*– Requisitos generales.

1.– Los solicitantes deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Estar al corriente del pago de las obligaciones fiscales y de la Seguridad Social.

b) En el caso de empresas, darse de alta o estar inscritos y tener actualizados los datos en el Registro de Industrias Agrarias, Pecuarias y Forestales.

c) En el caso de dos o más empresas que realicen de manera agrupadas acciones de promoción, que éstas estén sustentadas en un contrato a cualquier otro instrumento jurídico donde se acredite suficientemente el compromiso de las acciones conjuntas.

2.– Las PYME que soliciten ayudas deberán, además, cumplir los siguientes requisitos:

a) Que empleen a menos de 250 trabajadores.

b) Que su volumen de negocio anual no debe superar los 40.000.000 de euros, o bien su balance general no debe rebasar los 27.000.000 de euros.

c) Que la empresa no se halle participada directa o indirectamente en un 25% o más de su capital por otra empresa, o conjuntamente por varias, que no reúna algunas de las condiciones anteriormente expuestas.

Este umbral podrá superarse en los dos casos siguientes:

– Si la empresa pertenece a sociedades públicas de participación, sociedades de capital riesgo o inversiones institucionales, siempre que estos no ejerzan, individual o conjuntamente, ningún control sobre la empresa.

– Si el capital está distribuido de tal forma que no es posible determinar quién lo posee, y si la empresa declara que puede legítimamente presumir que el 25% o más de su capital no pertenece a otra empresa o con-

terik ETEren definizioarekin bat ez datorren beste inongo enpresak edo enpresa-taldek.

Hori dela eta, unean uneko baldintzak bete beharko dira. Izan ere, litekeena da Batzordeak 2001eko urtarrilaren 12an onetsi zuen 70/2001 EB Araudiaren I. eranskinean enpresa txiki eta ertainez ematen den definizioari aldian-aldian aldaketak egitea eta ondorioz baldintza berriak ezartzea. Araudi horretan azaltzen da nola aplikatu behar zaizkien EB Itunaren 87 eta 88. artikuluak estatuek enpresa txiki eta ertainei ematen dizkieten laguntzei.

*4. artikulua.–* Eskabideak eta agiriak.

1.– Laguntza-eskabideak Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariari bidali behar zaizkio eta Nekazaritza eta Arrantza Sailaren bulegoetan (Donostia kalea, 1, Gasteiz) aurkez daitezke edo bestela Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 38.4. artikuluan ezarritako tokietako batean. Eskabideak Internet bidez ere bete ahal izango dira, hain zuzen ere Nekazaritza eta Arrantza Sailak horretarako jarritako webgunean: www.nekanet.net.

2.– Dekretu honetan araututako laguntza-mota bakoitzerako agiri bereziak eskatu ahalko badira ere, laguntza-mota guztietarako, oro har, pertsona juridikoek dekretu honen eranskinetan laguntza-mota bakoitzerako dauden inprimaki normalizatuetan egindako eskabidea aurkeztu behar dute, eta honako agiri hauek erantsi behar dituzte:

– Zinpeko adierazpena, aurkezten diren agiri guztiak egiazkoak direla.

– Gizarte Segurantzari eta Ogasunari ordaindu beharrekoa ordaindu zaiela frogatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

– Sozietatearen estatutuen kopia.

– Eraketaren eskrituraren kopia eta Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

– Eskatzailearen NANaren fotokopia, eta haren ordezkaritasuna egiaztatzen duen eskriturarena.

– Hirugarrenen altaren inprimakia.

– Azken ekitaldiko kontu ikuskatuen kopia, edo horrelakorik ezean, Sozietateen gaineko Zergaren azken bi aitorpenen kopia.

– Jarduketa taldean egiteko konpromisoa, hala denean.

3.– Dekretu honetan araututako laguntza-mota bakoitzerako agiri bereziak eskatu ahalko badira ere, laguntza-mota guztietarako, oro har, pertsona fisikoek dekretu honen eranskinetan laguntza-mota bakoitzerako dauden inprimaki normalizatuetan egindako eskabidea aurkeztu behar dute, eta honako agiri hauek erantsi behar dituzte:

juntamente a varias empresas que no responden a la definición de PYME.

A estos efectos serán vinculantes los requisitos establecidos en cada momento como consecuencia de las sucesivas modificaciones que pudieran producirse en la definición de pequeñas y medianas empresas contenida en el Anexo I del Reglamento CE N.º 70/2001 de la Comisión, de 12 de enero de 2001, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado CE a las ayudas estatales a las pequeñas y medianas empresas.

*Artículo 4.–* Solicitudes y documentación.

1.– Las solicitudes de ayuda estarán dirigidas al Director Política e Industria Agroalimentaria y se presentarán, bien en las dependencias del Departamento de Agricultura y Pesca sita en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1 de Vitoria-Gasteiz, o bien por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Las solicitudes podrán cumplimentarse a través de Internet en la página Web que el Departamento de Agricultura y Pesca habilitará para tal efecto en www.nekanet.net/

2.– Sin perjuicio de la documentación específica que se pueda exigir para cada tipo de ayuda regulada en el presente Decreto, en común para todas ellas y con carácter general, las personas jurídicas, presentarán su solicitud en los impresos normalizados específicos que para cada tipo de ayuda se establecen en los Anexos del presente Decreto, junto con la documentación siguiente:

– Declaración jurada respecto de la veracidad de todos los documentos presentados.

– Certificados actualizados de hallarse al corriente en los pagos con la Seguridad Social y con Hacienda.

– Copia de los Estatutos Sociales.

– Copia de la escritura de Constitución y fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal.

– Fotocopia del D.N.I. y de la escritura que acredite el poder de representación de la persona solicitante.

– Impreso de Alta a Terceros.

– Copia de las cuentas auditadas del último ejercicio o en su defecto copia de las dos últimas declaraciones del Impuesto de Sociedades.

– En su caso, compromiso de actuación agrupada.

3.– Sin perjuicio de la documentación específica que se pueda exigir para cada tipo de ayuda regulada en el presente Decreto, en común para todas ellas y con carácter general, las personas físicas, presentarán su solicitud en los impresos normalizados específicos que para cada tipo de ayuda se establecen en los Anexos del presente Decreto, junto con la documentación siguiente:

– Zinpeko adierazpena, aurkezten diren agiri guztiak egiazkoak direla.

– Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.

– Hirugarrenen altaren inprimakia.

– Gizarte Segurantzari eta Ogasunari ordaindu beharrekoa ordaindu zaiela frogatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitorpenaren kopia.

– Jarduketa taldean egiteko konpromisoa, hala denean.

– ETE izatearen egiaztagiria, hala denean.

4.– Dekretu honetan araututako laguntza-mota bakoitzerako agiri bereziak eskatu ahalko badira ere, laguntza-mota guztietarako, oro har, jatorrizko deituren kontseilu arautzaileek, fundazioek eta elkarteek dekretu honen eranskinetan laguntza-mota bakoitzerako dauden inprimaki normalizatuetan egindako eskabidea aurkeztu behar dute, eta honako agiri hauek erantsi behar dituzte:

– Zinpeko adierazpena, aurkezten diren agiri guztiak egiazkoak direla.

– Gizarte Segurantzari eta Ogasunari ordaindu beharrekoa ordaindu zaiela frogatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

– Eraketaren aktaren kopia eta estatutuena.

– Elkartea izanez gero, Elkarteen Erregistroan emandako ziurtagiria, inskripzioa frogatzen duena.

– Eskatzailearen NANaren fotokopia, eta haren ordezkaritasuna egiaztatzen duen eskriturarena.

– Azken ekitaldiko kontabilitatearen egoera-orriak.

– Hirugarrenen altaren inprimakia.

5.– Eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesatuari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo erantsi beharreko agiriak eransteko hamar eguneko epean, eta adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela pentsatuko dela, Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariak ebazpena eman ondoren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42. artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz.

6.– Nolanahi ere, Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzak eskabidea behar bezala ulertzeko, ebaluatzeko eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio edota informazio guztia eskatu ahal izango dio enpresa eskatzaileari. Arau honetan berariaz ezarri ez den guztian Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean ezarritakoa aplikatuko da.

*5. artikulua.*– Epea eta deialdia.

– Declaración jurada respecto de la veracidad de todos los documentos presentados.

– Copia del Documento Nacional de Identidad.

– Impreso de Alta a Terceros.

– Certificados actualizados de hallarse al corriente en los pagos con la Seguridad Social y con Hacienda.

– Copia del último Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

– En su caso, compromiso de actuación agrupada.

– En su caso, documentación acreditativa de su condición de pyme.

4.– Sin perjuicio de la documentación específica que se pueda exigir para cada tipo de ayuda regulada en el presente Decreto, en común para todas ellas y con carácter general, los Consejos Reguladores de Origen, fundaciones y las Asociaciones, presentarán su solicitud en los impresos normalizados específicos que para cada tipo de ayuda se establecen en los Anexos del presente Decreto, junto con la documentación siguiente:

– Declaración jurada respecto de la veracidad de todos los documentos presentados.

– Certificados actualizados de hallarse al corriente en los pagos con la Seguridad Social y con Hacienda.

– Copia del Acta de constitución y de sus Estatutos.

– En caso de Asociaciones, certificado del Registro de Asociaciones acreditativo de la inscripción.

– Fotocopia del D.N.I. y de la escritura que acredite el poder de representación de la persona solicitante.

– Estados contables del último ejercicio.

– Impreso de Alta a Terceros.

5.– Si la solicitud no reúne todos los requisitos, se requerirá al interesado para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa Resolución del Director de Política e Industria Agroalimentaria dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

6.– En cualquier caso, la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria podrá requerir a la empresa solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada, señalándose que, en lo no expresamente previsto en la presente norma, resultará de aplicación lo previsto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 5.*– Plazo y Convocatoria.

1.– Urtero, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak agindua emango du eskabideak aurkezteko epea zabaltzeko, 2003. urterako dekretu honetako lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoa ezertan galarazi gabe.

2.– 2003. urterako dekretu honetako bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen iragankorretan xedatutakoa ezertan galarazi gabe, deialdian jarraiko edukiak ezarri beharko dira, besteak beste:

a) Diru-laguntzak finantzatzeko zuzkidura orokorra.

b) Jarduketak gauzatu behar diren epea, aurrekontuan baliagarri dagoen diruaren arabera, eta urtekoak.

c) Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko erabili diren irizpide objektiboak ezartzea.

*6. artikulua.*– Baloraziorako irizpide objektiboak.

Dekretu honetan ezarritako laguntzen zenbatekoa zehazteko eta eskariak ebaluatzeko, kontuan hartuko dira ondoko irizpide objektibo guztiak edo haietariko batzuk:

a) Jarduketak nekazaritza eta elikadurako produkzioetan izango duen eragina.

b) EAEko nekazaritza eta elikadura sektorean izango duen eragin bizkortzailea.

c) Urruntasuna, eta merkatuen dibertsifikazioaren gaineko eragina.

d) Jarduketaz onuratuko diren enpresen kopurua.

e) Jarduketaren garrantzia eta berrikuntza, daukan kostuarekiko.

*7. artikulua.*– Laguntzen kudeaketa.

1.– Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzak du dekretu honetan araututako laguntzak kudeatzeko eskumena.

2.– Laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateratuaren 51.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

3.– Aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta baloratzeko Balorazio Batzordea eratuko da. Bertan Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetzako hiru teknikari arituko dira, Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeak izendaturik. Batzorde horrek, laguntzak baloratu eta esleitzeko irizpide objektiboetan oinarrituta, ebazpenerako proposamena egingo dio Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariari.

*8. artikulua.*– Ebazpena.

1.– Balorazio Batzordearen proposamena ikusirik, Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariak eskabi-

1.– Anualmente, por Orden del Consejero de Agricultura y Pesca, se abrirá el plazo de presentación de solicitudes, sin perjuicio de lo dispuesto para el ejercicio 2003 en la Disposición Transitoria Primera del presente Decreto.

2.– Sin perjuicio de lo dispuesto para el año 2003 en las Disposiciones Transitorias Segunda, Tercera y Cuarta del presente Decreto, en dicha convocatoria se deberán establecer, entre otros extremos, los siguientes contenidos:

a) Dotación global destinada a la financiación de las ayudas.

b) Plazo en el que deben ejecutarse las actuaciones previstas, en función de las disponibilidades presupuestarias, y sus anualidades.

c) Concreción de los criterios objetivos utilizados para la determinación de la cuantía de las ayudas y su ponderación.

*Artículo 6.*– Criterios objetivos de valoración.

Para la evaluación de las solicitudes y determinación de la cuantía concreta de las ayudas previstas en el presente Decreto se tendrán en cuenta todos o algunos los siguientes criterios de objetivos:

a) Efecto de la actuación en las producciones agroalimentarias de calidad.

b) Efecto tractor sobre el sector agroalimentario de la CAPV.

c) Lejanía geográfica e incidencia en la diversificación de los mercados.

d) Numero de empresas beneficiadas en la actuación.

e) Importancia y novedad de la actuación en relación al coste de la misma.

*Artículo 7.*– Gestión de las ayudas.

1.– El órgano competente para la gestión de las ayudas reguladas en el presente Decreto es la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria.

2.– El procedimiento para la concesión de las subvenciones será el concurso, conforme lo establecido en el artículo 51.4 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

3.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Valoración, la cual estará compuesta por tres técnicos de la Viceconsejería de Agricultura y Desarrollo Rural nombrados por el Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural. Corresponde a la misma, sobre la base de los criterios objetivos de valoración y adjudicación de las ayudas, elevar la oportuna Propuesta de Resolución al Director de Política e Industria Agroalimentaria.

*Artículo 8.*– Resolución.

1.– Corresponde al Director de Política e Industria Agroalimentaria, a la vista de la propuesta elevada por

deak ebatziko ditu. Ebazpen proposamenarekin bat ez datorren erabakia hartzen badu (proposamen hori ez baita loteslea izango), arrazoiak azaldu beharko ditu.

2.– Ebazpenaren edukia:

– Diruz laguntzekoa den gastuaren zenbatekoa.

– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

– Jarduerak burutzeko epea eta, izatekotan, urtekoak.

3.– Ebazpena sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, eskabideak aurkezteko epea zabaltzeko urtero Nekazaritza eta Arrantza sailburuak emango duen agindua indarrean jartzen denetik hasita. Epe horretan berariazko ebazpenik izan ezean, interesatuek eskabideak ezetsi direla pentsatu ahal izango dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta dekretu honetako bosgarren xedapen iragankorrean xedatutakoa ezertan galarazi gabe.

4.– Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariak laguntza emateko edo ukatzeko emandako ebazpenaren aurka interesatuak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari eta horretarako hilabeteko epea izango du ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera, edo hiru hilabeteko epea administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta biharamunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 114 eta 115. artikuluetan xedatuarekin bat etorriz.

5.– Laguntzei buruzko ebazpena banan-banan jakinaraziko da. Horrez gainera, Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariak ebazpena emango du, EHAAn argitara eman daitezen dekretu honen babesean emandako diru-laguntzak eta erakunde edo pertsona onuradunak.

***9. artikulua.***– Onuradunen betebeharrak.

Dekretu honetan araututako laguntzen onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Laguntza eman den xederako erabili behar dute.

b) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren eta Europako Erkidegoaren esku jarri behar dituzte inbertsioa eta gastuak egin direla egiaztatzeko behar diren agiri guztiak.

c) Dekretu honen kontura jasotako laguntzen xedea fiskalizatzeko eskatzen dituzten argibideak eman behar dizkiete Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari.

la Comisión de Valoración, la resolución de las solicitudes, exigiéndose la motivación de dicha decisión cuando se aparte de la Propuesta de Resolución, la cual no tiene carácter vinculante.

2.– Contenido mínimo de la Resolución:

– Importe del gasto subvencionable.

– Cantidad subvencionada.

– Período y, en su caso anualidades, de ejecución de las actividades.

3.– La Resolución se dictará y notificará en el plazo máximo de seis meses desde la entrada en vigor de la Orden del Consejero de Agricultura y Pesca que anualmente abra el plazo de presentación de solicitudes, transcurrido el cual sin resolución expresa, los interesados podrán entender desestimadas sus solicitudes de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Transitoria Quinta del presente Decreto.

4.– Contra la Resolución del Director de Política e Industria Agroalimentaria de concesión o denegación de la ayuda, podrá el interesado interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la recepción de la notificación de dicha Resolución, o en el plazo de tres meses a partir del día siguiente a aquel en que se produzcan los efectos del silencio administrativo, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y 115 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.– Sin perjuicio de la notificación individualizada de la Resolución de las ayudas previstas, por Resolución del Director de Política e Industria Agroalimentaria se publicará en el BOPV el total de las subvenciones y entidades o personas beneficiarias al amparo del presente Decreto.

***Artículo 9.***– Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las ayudas reguladas en el presente Decreto deberán cumplir, en todo caso, las siguientes obligaciones:

a) Utilizar la ayuda para el concreto destino para el que ha sido concedida.

b) Poner a disposición tanto del Departamento de Agricultura y Pesca como de la Comunidad Europea, toda la documentación necesaria para que éstos puedan verificar la ejecución de la inversión y la realización del gasto.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas recibidas con cargo a este Decreto.

d) Administrazioren batek edo erakunde publiko zein pribaturen batek laguntza edo diru-laguntza ematen badie helburu bererako, horren berri eman behar diote Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailari.

e) Diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarren bat, objektiboa zein subjektiboa, aldatuz gero, horren berri eman behar diote Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailari.

*10. artikulua.–* Jarduketaren justifikazioa.

1.– Laguntzak eman ziren xederako erabili direla frogatzeko, ondoko agiri hauek aurkeztuko zaizkio Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzari:

– Fakturak eta ordainagiriak, fakturen koadroarekin eta memoriarekin batera, Zuzendaritzak egindako ereduaren arabera. Dekretu honen eranskinean agertzen da (11. inprimakia).

– Merkatuaren azterketa egiteko laguntza eskatuz gero, diru-laguntzaz egindako azterlanaren kopia osoa aurkeztu beharko da.

– Gainera, zuzeneko edo alderantzizko merkataritza-ekintzen kasuan honakoak aurkeztu beharko dira: hegaldiaren txartela; hoteleko faktura, zenbat eguneko egonaldia egin den agertzen duena; ekintzan parte hartu duten pertsonen zerrenda; eta ekintzaren amaierako txostena, parte-hartzaileak non izan diren eta helburuak zenbateraino bete dituzten zehatz-mehatz azaltzen duena.

– Egindako bidaiak frogatzeko, eta diru-laguntzaren aplikazioari begira, hauek besterik ez dira aurkeztu beharko: hegaldien txartelak, eta hoteleko fakturak, egonaldiaren egiaztagiri gisa.

Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzak agiri gehiago eskatu ahalko ditu, egoki irizten badio, aurreko pasarteetan ezarritakoa zehaztu, argitu edo osatzearren.

2.– Jatorrizko agiriak edo, halakorik ezean, fotokopia konpultsatuak baino ez dira onartuko.

*11. artikulua.–* Ordainketa.

1.– Diru-laguntza dena batera ordainduko da. Aldez aurretik inbertsioa frogatu beharko da, aurreko artikuluan aipatutako agirien bitartez, diru-laguntza eskatu eta hurrengo urteko martxoaren azken eguna baino lehen frogatu ere.

2.– Laguntza ordaintzeko epea sei hilekoa izango da gastuaren frogagiriak behar bezala aurkezten direnetik.

*12. artikulua.–* Laguntzari uko egitea.

Onuradunak berez galduko du ebazpenaren bidez aintzatetsitako eskubidea, bai eta laguntza osoa edo haren zati bat kobratzeko eskubidea ere, kasuan kasukoa,

d) Comunicar al Departamento de Agricultura y Pesca la obtención de otras subvenciones y ayudas para la misma finalidad, procedente de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.

e) Comunicar al Departamento de Agricultura y Pesca la modificación de cualquier circunstancia, tanto objetiva como subjetiva, que hubiese tenido en cuenta para la concesión de la subvención.

*Artículo 10.–* Justificación de la actuación.

1.– La justificación del destino de las ayudas para la finalidad para la que se otorgaron, se realizará mediante la presentación, ante la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria, de la siguiente documentación:

– Facturas y comprobantes de pago, junto con una memoria y un cuadro de facturas, según modelo facilitado por la Dirección que se recoge en el Anexo (Impreso 11) del presente Decreto.

– En el caso de que se haya solicitado ayuda para la realización de estudios de mercado, deberá de adjuntarse una copia completa del estudio cuya subvención se solicita.

– En el caso de Misiones Directas o Inversas deberá de presentarse además el billete de avión, factura del hotel donde quede constancia de los días de estancia, relación de las personas integrantes de la misión, junto con un informe final completo de la misión en el que se detalle los lugares visitados y el cumplimiento de los objetivos previstos.

– Para la justificación de los viajes realizados y de cara a aplicar la subvención sólo será necesario presentar los billetes aéreos y las facturas de hotel como comprobantes de la estancia.

La Dirección de Política e Industria Agroalimentaria podrá solicitar documentación adicional, en caso de estimarlo oportuno, con el objeto de concretar, aclarar o completar la establecida en el apartado anterior.

2.– Tan sólo se aceptará documentación original o, en su defecto, fotocopia compulsada.

*Artículo 11.–* Pago.

1.– El pago de la subvención será único y se realizará previa justificación de la inversión mediante los documentos a los que hace referencia en el artículo anterior, siempre antes del último día del mes de marzo del año siguiente al de solicitud de subvención.

2.– El plazo para el pago de la ayuda será como máximo de tres meses desde la correcta presentación de los justificantes del gasto.

*Artículo 12.–* Renuncia.

El beneficiario perderá automáticamente el derecho reconocido mediante la Resolución, así como el derecho al cobro del total o parte de la ayuda, según los ca-

laguntzari uko egiteko idazkia aurkezten badu. Hala gertatzen bada, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako itzulketa-prozedura abiaraziko da bidezkoa denean. Laguntzari uko egiteko idazkia Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariari bidali behar zaio.

*13. artikulua.–* Laguntzak emateko ebazpenaren aldaketa eta ez-betetzea.

1.– Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartu diren baldintzak aldatu badira, edo beste edozein erakundetatik —publiko nahiz pribatu— helburu bereko diru-laguntzak jasotzen badira, jakinarazi behar zaio, idatziz, Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzari. Horren ondorioz, aldatu ahal izango da diru-laguntzaren ebazpena, beti ere Dekretu honetan ezarritako gutxienezko betekizunak betetzen badira. Hori hala izango balitz, Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzak aldaketako ebazpena emango luke, eta bertan lehengo diru-laguntzaren zenbatekoa oinarri berrira egokituko litzateke.

2.– Nolanahi ere, onuradunak betetzen ez badu dekretu honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako eskakizunen bat edo, hala bada, diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzaren bat, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeko 53. artikuluan ezarritako itzultze-arrazoietako batean erortzen bada, Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariak, itzulketa-espedientea izapidetu ondoren (interesatua entzunda), beste ebazpen bat emango du eta bertan diru-laguntzarako eskubidea galdu dela aldarrikatuko eta, behar bada, jasotako laguntzak eta legezko korrituak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola aginduko, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta itzulketei buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeko 53. artikuluan ezarri denaren arabera. Dena dela, ez dira baztertuko gainerako bidezko ekintzak. Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat joko dira lege-ondorio guztietarako.

Administrazioko arau-hauste baten ondorioa bada itzulketa-prozedura, eskumena duen organoari jakinaraziko zaio, behar den zehapen-prozedurari ekin diezaion.

3.– Baldin eta gastuaren behin betiko eta benetako kostua onetsitako gastuaren aurrekontua (laguntza zehazteko baliatu zena) baino gutxiago bada, diru-laguntzaren zenbatekoa kitatu egingo da, Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariaren ebazpenaren bidez, eta gero diru-laguntzaren portzentajea oinarri berriari aplikatuko zaio.

sos, cuando presente por escrito una renuncia expresa de la ayuda concedida, iniciándose a continuación y cuando proceda, el procedimiento de reintegro previsto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre. La renuncia deberá dirigirse al Director de Política e Industria Agroalimentaria.

*Artículo 13.–* Modificación e incumplimiento de la Resolución de ayudas.

1.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en su caso la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, deberá ser notificada por escrito a la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria, y podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de la subvención, siempre y cuando se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos en el presente Decreto. A estos efectos, la Dirección de Industria y Política Agroalimentaria dictará la oportuna Resolución de modificación en la que se reajustarán los importes de la subvención concedida sobre la nueva base.

2.– En todo caso, si el beneficiario incumpliera cualesquiera de los requisitos establecidos en el presente Decreto y demás normas aplicables, así como las condiciones que, en su caso, se establezcan en la Resolución de concesión de la subvención, o incurriera en cualquiera de las causas de reintegro previstas en el artículo 53 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, el Director de Política e Industria Agroalimentaria, previo expediente de incumplimiento en el que se dará audiencia al interesado, declarará, mediante Resolución, la pérdida del derecho a la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las ayudas percibidas y los intereses legales correspondientes, conforme a lo dispuesto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, sobre garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en el citado artículo 53 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las citadas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos legales.

Si el procedimiento de reintegro se hubiera iniciado como consecuencia de hechos que pudieran ser constitutivos de infracción administrativa, se pondrán en conocimiento del órgano competente para la iniciación del correspondiente procedimiento sancionador.

3.– En el caso de que el coste definitivo real del gasto fuera inferior al presupuesto de gasto aprobado y sobre el que se concedió la ayuda, la cuantía de la subvención concedida será minorada mediante Resolución del Director de Política e Industria Agroalimentaria de liquidación de la ayuda en la proporción que resulte, aplicándose entonces el porcentaje de la subvención sobre la nueva base.

4.– Hasieran aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa handitzen bada, ebazpen-proposamenaren fasera iritsi aurretik soilik sartu ahal izango da espedientean. Geroago handitutako aurrekontua aurkezteak ez du ekarriko laguntzaren zenbatekoa gehitzea.

*14. artikulua.*– Bateraezintasunak.

1.– Dekretu honetan ezarritako laguntzak eta beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuek xede berarekin ematen dituztenak bateraezinak izango dira.

2.– Nolanahi ere, eta dekretu honen 9. artikuluan ezarritakoarekin bat, onuradunak Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritza jakitun jarri beharko du, idatziz, beste edozein administrazio edo erakunde pribatuk diru-laguntza ematen badio xede berarekin.

*15. artikulua.*– Diru-laguntzen finantzaketa.

1.– Dekretu honetan araututako laguntzak osorik finantzatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kargura.

2.– Aurrekontu-ekitaldi batean emango diren laguntzen guztirako zenbatekoa ezin da handiagoa izan laguntzen deialdiko aginduan urtero ezartzen den finantzaketarako zuzkidura orokorra baino. Zenbateko hori aldatu ahal izango da, eskaturiko laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan hartuz, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren agortu gabeko aurrekontu-baliabideen gorabeheran, eta laguntzen ebazpena eman baino lehen. Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariak horren berri emango du jakitera ebazpen bidez laguntzak ebatzi aurretik.

## II. KAPITULUA
## EEE ERATZEKO ITUNAREN I. ERANSKINEAN DAUDEN NEKAZARITZAKO PRODUKTUAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK

*16. artikulua.*– Xedea.

1.– Kapitulu honetan arautzen diren laguntzak EE Itunaren I. eranskinean dauden nekazaritzako produktuak sustatzeko emango dira; zehazki, honako jarduketa hauek egiteko:

1. Merkataritzako azoka eta lehiaketetan parte hartzea.

2. Merkatu azterketak.

3. Zuzeneko ekintzak atzerrian.

4. Alderantzizko ekintzak atzerritik.

5. Sustapenerako beste jarduketa batzuk.

2.– Kapitulu honetan eta hura garatzen duten xedapenetan araututako laguntzak jaso dezaketen ekintzek,

4.– En el supuesto de que el presupuesto inicialmente presentado se modificara al alza, sólo se podrá incorporar al expediente antes de que éste se halle en fase de propuesta de resolución. La presentación posterior de un presupuesto rectificado al alza no supondrá el incremento de la ayuda concedida.

*Artículo 14.*– Incompatibilidades.

1.– Las ayudas establecidas en el presente Decreto serán incompatibles con cualesquiera otras concedidas por otras Administraciones Públicas o por entidades privadas, otorgadas para el mismo concepto.

2.– En todo caso, y de acuerdo con lo establecido en el artículo 9 del presente Decreto, el beneficiario deberá comunicar por escrito a la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria la obtención de cualquier otra subvención o ayuda procedente de cualquier administración o entidad privada obtenida para la misma finalidad.

*Artículo 15.*– Financiación de las ayudas.

1.– Las ayudas previstas en el presente Decreto se financiarán únicamente con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– El volumen total de las ayudas a conceder dentro de un ejercicio presupuestario no superará la dotación global destinada a la financiación de las ayudas que anualmente se establezca en la Orden de Convocatoria de las ayudas. Dicho importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas del Departamento de Agricultura y Pesca y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Director de Política e Industria Agroalimentaria, con carácter previo a la resolución de las ayudas.

## CAPITULO II
## AYUDAS A LA PROMOCION DE LOS PRODUCTOS AGRARIOS INCLUIDOS DENTRO DEL ANEXO I DEL TRATADO CONSTITUTIVO DE LA CEE

*Artículo 16.*– Objeto.

1.– El presente capítulo regula las ayudas a las actuaciones de promoción de los productos agrarios incluidos dentro del Anexo I del Tratado CE, siguientes:

1. Participación en Ferias y Certámenes Comerciales.

2. Estudios de Mercado.

3. Misiones Directas realizadas en países terceros.

4. Misiones Inversas de terceros países.

5. Otras Actuaciones de Promoción.

2.– En todo caso las acciones subvencionables contenidas en este Capítulo y las disposiciones que lo de-

betiere, EE Itunaren I. eranskinean dauden nekazaritzako produktuen eta beste zenbait produkturen publizitaterako estatuek ematen dituzten laguntzei buruzko 2001eko irailaren 12ko zuzentarauetan ezarritako baldintzak eta mugak bete beharko dituzte (EEAO 2001/C 252/03) bai eta estatuek nekazaritzarako ematen dituzten laguntzei buruzko Europako zuzentarauetan ezarritakoak ere (EEAO, 28 zk., 2000-02-01ekoa).

*17. artikulua.*– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

Kapitulu honen arabera diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak ondokoak dira:

1.– Merkataritzako azoka eta lehiaketetan parte hartzea.

a) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten diren merkataritzako azoka edo lehiaketetan bakarka nahiz taldean parte hartzeko soilik emango da diru-laguntza.

b) Gastu hauetarako jaso ahal izango da diru-laguntza:

– Azokan tokia alokatzeko.

– Erakustokia apaintzeko.

– Sustapen-materialetarako.

– Bidai gastuetarako.

– Azokan egin behar diren beste gastu batzuetarako.

c) Ez da azokan parte hartzeko diru-laguntzarik emango baldin eta euskal erakundeek azokan euren erakustokia izanik nekazaritzako produktuen arloko ETEei bertan agertzeko aukera eskaintzen bazaie, behar bezala zurituriko salbuespenak salbu.

2.– Merkatu-azterlanak.

a) Diru-laguntza jaso daiteke, kanpoko merkatuak aztertzeko eta ikertzeko lanengatik, baldin eta nekazaritzako produktuak egiten dituzten ETE bik edo gehiagok osaturiko partzuergoak, irabazi-asmorik gabeko elkarteak edo jatorri-deituren kontseilu arau-emaile batek beste enpresa bati utzi badiote ikerlana egiteko ardura.

b) Ez dira laguntzagai izango estatuko merkatuaren gainean egindako merkatu-azterlanak.

3.– Zuzeneko bisitaldiak.

Laguntzagai izango dira, nekazaritzako produktuak egiten dituzten ETE bik edo gehiagok osaturiko partzuergoek, irabazi-asmorik gabeko elkarteek, fundazioek eta jatorri-deituren kontseilu arau-emaileek erosleei edo preskriptoreei egiten dizkieten bisitak, euskal nekazalgaiak Estatu Espainiarretik kanpo sustatzearren.

4.– Alderantzizko bisitaldiak.

Laguntzagai izango dira, nekazaritzako produktuak egiten dituzten ETE bik edo gehiagok osaturiko partzuergoek, irabazi-asmorik gabeko elkarteek, funda-

sarrollan deberán de ajustarse a los requisitos y limitaciones recogidos en las Directrices sobre ayudas estatales para la publicidad de productos agrarios incluidos en el Anexo I del Tratado CE y de determinados productos no incluidos en el mismo (DOCE 2001/C 252/03) de 12 de septiembre de 2001 y en las Directrices Comunitarias sobre Ayudas Estatales al Sector Agrario (DOCE C N.º 28 de 1.02.2000).

*Artículo 17.*– Actividades subvencionables.

